

# berria

Ostirala , 2005ko urriak 21 , 00:05:00an berritua

Gau

## Azken ordukoak

### Berriak

Harian

Iritzia

Euskal Herria

Ekonomia

Mundua

Gaiak

Kirola

Kultura

Azkena

### Agenda

Agenda

Eguraldia

Zozketak

Horoskopoa

Telebista

Farmaziak

Telefonoak

### Bereziak

Webguneak

Gure gaiak

Pareak bai

Elkarrizketak

English Edition

Bisitak

Hemeroteka

### Zerbitzuak

Harpidetza

Publizitatea

Mezuak

## Kultura



# Kulturaren Euskal Planaren oinarriak sustatzeko biltzarra

Kultura kudeatzeko eta bultzatzeko ereduak aztertuko dituzte hemengo eta kanpoko adituek Bilboko Euskaldunan, azaroaren 14an eta 15ean

### IRUNE BERRO - BILBO

Kultur Politikei Buruzko Nazioarteko I. Biltzarra egingo dute Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kulturaren Euskal Kontseiluak. Kulturaren Euskal Planean (KEP) jasotako helburuak erdiesteko bitarteko izan nahi du biltzarrak, eta hartarako, hemengo zein atzerriko hainbat aditu bilduko dira Bilboko Euskalduna jauregian, azaroaren 14an eta 15ean. Euskal Herriko zein atzerriko kultur politiken gainean hausnartuko dute. Gurutz Larrañaga Kultura sailburuordeak adierazi duenez, «KEPekin hasitako gogoeta prozesuari jarraipena ematea da Biltzarraren asmoa».

Kultur Politikei Buruzko Nazioarteko I. Biltzarrak ildo nagusi bi izango ditu. Lehena orokorra izango da, Larrañagaren hitzetan, «ikastekoa». Euskal Herritik kanpoko beste herri batzuetan kulturaren eta komunikazioaren arloan dituzten arazo eta gabeziak ezagutu, eta horiei aurre egiteko hartu dituzten erabaki eta neurrien inguruko informazio zabal eta sakona emango du, kanpoko adituen eskutik. Bigarrenak, aldiz, hausnarketa praktikoa egitea izango du xede. Hain zuzen, euskal kulturaren gainean gogoeta egiteko plaza izan nahi du. Euskal Herriko kultur eragileek nahiz erakunde publikoetako ordezkariak parte hartuko dute Biltzarraren bigarren atalean jasotako mintegi eta eztabaidetan. Bestek beste, kultura teknikariek eta zinegotziek. Hortik ateratako ondorioak horrenbestez, oso kontuan hartuko dituzte udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak.

### Quebec eta Katalunia

UNESCOren Kultur Esperientzien Aniztasunari Buruzko Gailurraren emaitzen berri emango du Armard Mattelartek Bilboko Biltzarrean. Rosa Franquet eta Enrique Bustamante katedradunek halaber, ikus-entzunezko komunikazioan gertatzen ari diren aldaketa teknologikoak eta zerbitzu publikoari dagozkionak izango dituzte hizpide. Izan ere, kulturatik haratagoko gaiak ere jorratuko du Bilboko Biltzarrak, Ramon Zallo Batzorde Teknikoko lehendakariordeak azaldu duenez. «Komunikazioaren esparruan kokatzen diren gaiez hitz egingo da ere bai, modu ahalik eta zabalenean landuko baitugu kultura, ikuspegi ahalik eta zabalenaekin».

Hori horrela, Michele Boldrin Minnesotako Unibertsitateko irakasleak

ERO



Leh

aur

be

SAIL

- Jir harr Frar

- EI azte idaz

- Bu hanl

- Gc

- Dc eta zab

- Ml

- At

- Ha

- Na

demokratizazio teknologikoaren eta jabego intelektualaren eskubideen arteko harreman «zailez» mintzatuko da, Eta Alan Arvidson ingeniari suediarrek, Interneten domeinuak hizkuntz eremuka sortzeko aukerez.

Zaloren arabera, Quebec eta Katalunia aitzindariak dira kultura sustatzeko politika berri eta egokiak finkatzen eta garatzen. Hala, bi herri horietako kulturaren munduko kideak ekarriko dituzte Biltzarrera. Xabier Finak, Consultors Culturalseko zuzendariak, kultura kudeatzeko eredu instituzionalak izango ditu mintzagai, eta Lluís Bonetek, Kataluniako Kultur Industriaren Liburu Zuriaren egileak, kultura gutxituen erronken inguruko berbaldia emango du. Quebecetik iritsiko dira Gerald Grandmont Kultura ministrordea eta Serge Bernier Kultura eta Komunikazio Behatokiko zuzendaria. Kultura sustatzeko eta kudeatzeko beren herriko eredu berri emango diete Euskaldunara bildutako lagunei. Begia Euskal Herritik kanpo jarri ondoren, etxeoaz, euskal kulturaz, mintzatzeko eta gogoeta egiteko astia hartuko dute Biltzarraren parte-hartzaileek. KEPEk jasotzen dituen oinarriak indartu eta zabaltzeko helburuari jarraiki, hitzaldi, mahai-inguru eta mintegiak izango dira Biltzarrak irauten dituen egun bietan. Esaterako, Anjel Lertxundi idazleak kulturaren esparru desberdinak aztertuko ditu, betiere euskarak horietan beharko lukeen presentzia aintzat hartuta. Bestalde, kultura diziplina ezberdinak landu dituzten ikerketa batzordeek urtebetean eginiko lana aurkeztuko dute Biltzarrean. Santi Erasok adibidez, koordinatzen duen taldeak arte plastikoen gainean eginiko lanaren nondik norakoak azalduko ditu; Joan Mari Torrealdaik, euskarazko literaturari dagokion azterketaren berri emango du, eta Jabier Muguruzak, fonografiaren arloan eginiko lana jakinaraziko du. Badira ere aditu taldeak beste arlo batzuk jorratu dituztenak, hala nola, liburutegi sistemak, etnografia, dantza eta antzerkia. Horiek ere eginiko lana agertuko dute Biltzarrean.

#### NAZIOARTEKO ADITUEN BILKURA

Kultur Politikei Buruzko Nazioarteko I. Biltzarra Bilboko Euskaldunan egingo da, azaroaren 14an eta 15ean. Hainbat adituk hartuko dute parte: nazioartetik etorritakoek hitzaldiak emango dituzte, eta Euskal Herrikoek hainbat hausnarketen berri emango dute.

Nazioarteko adituen hitzaldiak: Suediako, Kataluniako eta Quebeceko adituek beren herrietan kultura eta komunikazio arloan dituzten arazo eta gabeziei aurre egiteko hartutako erabaki eta neurrien berri emango dute.

Euskal profesionalen ekarpenak: Euskal kulturaren arlo ezberdinen inguruko hitzaldiak eman eta diziplina ezberdinak ikertu dituzten batzordeek ateratako ondorioak publiko egingo dituzte.

Inprimatu



E-postaz bidali



Gomendatu



© BERRIA-Edizio Digitala

[berria@berria.info](mailto:berria@berria.info) - [www.berria.info](http://www.berria.info)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590